

## **LT5: Jasangarritasuna tokiko esparruan bultzatzea.**

- Komunikazioaren izenburua: EKOGUNeko BARATZE ESKOLA, hezkuntzarako baliabidea
- Egilearen izen-abizenak: Amalia Virto eta Naiara Elorriaga
- Posterraren ahozko aurkezpena edo defentsa egingo duen pertsona: Amalia Virto
- Helbidea, helbide elektronikoa eta telefonoa: Kutxa Ekogunea, Hernani-Rekalde errepidea z/g, (GI-2132, 2.km-a) 20009 Donostia, [ekogunea@ekogunea.eus](mailto:ekogunea@ekogunea.eus), 943552020
- Gako-hitzak (5). ekologikoa, aniztasuna, baratzea, curriculum, herritarrak
- Lantokiaren, unibertsitatearen eta herrialdearen erreferentziak. Kutxa Ekogunea, Hernani-Rekalde errepidea z/g, (GI-2132, 2.km-a) 20009 Donostia

Azalpena: EKOGUNeko BARATZE ESKOLA, HEZKUNTZARAKO BALIABIDEA

### **Zer da?**

Jasangarritasunaren Parkean kokatutako baratzezaintza ekologikoko interpretazio zentro berezia da, aire librean dena, aldakorra, bizia, eta esperimentalak.

### **Ze beharrak asebetetzen ditu?**

- Ingurumen hezkuntzarako gune didaktikoa da: *curriculum* desberdinetako gaiak txertatu dira.
- Hezkuntza programa bat diseinatu da, bera oinarri hartuta.
- Gipuzkoan osatzen ari den Baratze Parke Sarearen testuinguruan formazioa emateko tresna garrantzitsua da (Egun 850 bat herritar sarean).
- Baratzezaintza eta naturan interesa duen guztientzako bisita gidatu eta autogidatuak eskaintzen dira.

### **Ibilbidea**

Baratzezaintza ekologikoaren ildo nagusiak modu antolatu, ikusgarri eta didaktiko batean erakusteko xedez, 7 ataletan antolatuta dago:

- Baratze ama: landareen ziklo osoa (baratzean inoiz ikusten ez dena), barazkien ugalketa mota desberdinak, haziak biltzeko eta gordetzeko teknikak.
- Bitxi biziak: beste herrialdetako barazki exotikoak, lore jangarriak, umeentzako barazki erakargarriak.
- Ingurunea: isuri kantauriarraren ezaugarri klimatiko, geologiko eta orografikoek gure baratzetan duten eragina.
- Bioaniztasuna: inguruko landare eta animaliak mantentze eta ugaltzearen garrantzia, baratzea ekosistema bezala ulertua. Fauna eta landare mesedegarriak erakartzearen garrantzia eta teknikak, izurri eta gaitzen aurkako sendagai naturalak nola egin eta erabili, e.a.

- Kultura: baratzezaintza iraunkor baterako teknika nagusiak, hala nola, errotazioak eta txandakatzeak, uztarketak, goldatzea, garaian garaikoak, baratzaren hiztegia, bizimodua, e.a.
- Lurra: luraren emankortasuna mantentzearen garrantzia, ongarri naturalen erabilera, konposta egiteko teknika desberdinak, ongarri berdeak,...
- Teatro txikia: aurkezpenak, erakustaldiak, bilerak egiteko ohol txiki bat eta 80 bat pertsonentzako graderio dauka.

Sasoi bakoitzean landu daitezkeen landareak aurkeztzen dira, barazkien aniztasuna ere erakutsiz.

Diseinuak eta mantenu lanak partaidetzaren bidez gauzatzen dira, eta baita ere uzta konpartitu.

